

KAHOOT JOLASEAN SARTZEKO GIDA

Log in


Username or email


Password


Forgot password? [Reset your password](#)


Log in

or

 Continue with Google

 Continue with Microsoft

 Continue with Apple


 Continue with Clever

Klikatu guk emandako esteketan, eta bi aukera agertuko zaizkizu:


1. **LOG IN** (aurrez erregistratuta bazaude, sartu)
2. **CONTINUE WITH...** (bat aukeratu ezean, ezingo duzu aurrera egin)

Lehen “Sartu gonbidatu moduan” aukera agertzen zen; orain, ez.


Oharra: Kahootek, tamalez, ez du “Euskara” aukerarik hizkuntzen artean, eta ingelesez topatuko dituzu argibideak, baina bestelako hizkuntza batzuk hauta ditzakezu: gaztelania, frantsesa...




Hurrengo pantailan, ezkerrekoa agertuko zaizu. Klikatu “**Start**” (Hasi) taldean jokatzeko. Bakarka aritzeko, “Play solo” klikatu beharko zenuke.



Hurrengo pantailan, ezkerrekoa agertuko zaizu. Klikatu “**Classic mode**” (Modu klasikoa) azpiko “**Start**” (Hasi).




Hurrengo pantailan, ezkerrekoa agertuko zaizu. Itxaron, eta ikasleei emateko zenbaki bat agertuko zaizu.



Ikasleek, euren telefonoetan, gune honetara jo beharko dute: **kahoot.it**, eta bertan “**Play**” klikatuta, zenbakia idazteko aukera agertuko zaie. Zenbakia idatzita, euren izenak idazteko aukera agertuko zaie.

Izenak idatzi, eta **“OK, go!”** klikatu ahala, pantailan agertzen joango dira. Bakarka ere jolas daiteke (autoikaskuntzako ikasleei, esaterako, hau agertuko zaie):



Eta horrela, denak sartzean, jokoari hasiera emango diogu. Ikasleek galdera eta erantzun posibleak pantaila handian ikusiko dituzte, baina erantzun zuzena euren telefonoetan klikatu beharko dute.

